

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

258

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 9koa, Industriako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Deskarbonizazio Industrialeko Programaren esparruan aurreikusitako laguntzen 2023ko erakunde onuradunen zerrenda. Euskal Autonomia Erkidegoan beren ekoizpen-prozesu industrialetan deskarbonizazioaren bidez ingurumenaren babes-maila hobetzeko inbertsioak egiten dituzten enpresei emango zaizkie laguntza horiek. Deskarbonizazio Industrialeko Programa, 2023. urtea.

Dirulaguntza publikoak emateko orduan, ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela eta, Deskarbonizazio Industrialeko Programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko irailaren 12ko Aginduaren babesean emandako laguntzei dagokienez –Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsioak egiten dituzten eta, deskarbonizazioaren bidez, beren ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten enpresentzako laguntzak. Deskarbonizazio Industrialeko Programa 2023–, eta laguntzak emateko ebazpena banan-banan jakinarazi ostean enpresa interesdun bakoitzari, ebazpen honen bidez, adjudikaziodunen zerrenda argitaratzen da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorritz, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deskarbonizazio Industrialeko Programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko irailaren 12ko Aginduaren esparruan emandako laguntzen 2023ko onuradunen zerrenda argitaratzea –Euskal Autonomia Erkidegoan inbertsioak egiten dituzten eta, deskarbonizazioaren bidez, beren ekoizpen-prozesu industrialetan ingurumenaren babes-maila hobetzen duten enpresentzako laguntzak–. Hori guztia ebazpen honen eranskinean jasotakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 9a.

Industriako sailburuordea,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.

ERANSKINA

DESKARBONIZAZIO INDUSTRIALEKO PROGRAMA, 2023. URTEA

Sozietatearen izena	Itzuli beharrik gabeko laguntza (eurotan)
Acería de Álava, S.A.	201.904,00
ECN Colada Aluminio, S.L.	279.009,60
Tubacex Tubos Inoxidables, S.A.	81.998,00
Acelormittal Sestao, S.L.	847.000,00
JMA Alejandro Altuna, S.L.	20.148,15
Winoa Ibérica, S.A.	24.216,27
Orkli, S.C.L.	82.686,32
Industria de Turbo Propulsores, S.A.	412.147,00
Gamarra, S.A.	1.048.410,00
Befesa Aluminio, S.L.	366.147,00
Bronymec, S.A.	117.000,00